Andoaingo Udala

EUSKARA ZERBITZUA

Kodea: 2025AKN20005

Baldintza Teknikoen Agiria **Pliego de Condiciones Técnicas**

Rikardo Arregi Kazetaritza Saria iragartzeko egiten den ekitaldi publikoaren diseinua eta kudeaketa

Diseño y gestión del acto público para anunciar los trabajos ganadores del Premio de Periodismo Rikardo Arregi

Kontratu mota Tipo de contrato	**Zerbitzuak** / Servicios	**Prozedura** Procedimiento	**Irekia** / Abierto	**Esp. kodea** Código Exp.	**2025AKN20005**
Lizitazio elektronikoa Licitación electrónica	☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No	**Tramitazioa** Tramitación	☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente		

1. Xedea

Kontratu honen helburua da Rikardo Arregi Sarien ekitaldia diseinatzeko, ekoizteko eta zuzentzeko laguntza teknikoa bideratzea, betiere emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatuz eta bermatuz.

2. Lanaren ezaugarriak

Ekitaldia Bastero Kulturguneko auditorioan gauzatuko da, azaroaren bukaeran, eta kultur arloko agintariak eta ordezkariak, herritarrak eta komunikabideak bertaratzea aurreikusten da, 130 lagun, gutxi gora behera.

Sarietan bi atal daude, Kazetaritzari dagokiona eta Komunikazioari dagokiona, eta bi sari horietaz gain, Epaimahaiak egoki irudituz gero, Ohorezko Mugarria ere egon daiteke. Hiru sariak entregatu, eta tartean musika, dantza edo bestelako ekintza artistikoak sartuko dira, gutxienez 50 minutu eta gehienez 60 minutuko ekitaldia sortu arte. Era berean ETBk grabatu edota zuzenean emitituko du.

Honako lanak izango ditu enpresak bere gain:

- Sari banaketa ekitaldiaren diseinua.
- Aurkezlea eta emanaldiak proposatzea eta lotzea.
- Agertokia diseinatzea eta egokitzea.
- Gidoia eta eskaleta egitea.
- Ekitaldian proiektatuko diren 3 ikus-entzunezkoen ekoizpena. Horietako 2k Kazetaritza eta Komunikazioko finalisten irudiak erabiliko dituzte eta, gehienez ere, 2 minutu iraungo du bakoitzak. Hirugarren ikus-entzunezkoa Ohorezko Mugarriari buruzkoa litzateke, horrelakorik egongo balitz, eta, gehienez ere, 3 minutuko iraupena luke. Azken horren ekoizpenerako, gutxienez, 2 elkarrizketa grabatu beharko dira.

1. Objeto

El objeto del presente contrato es la asistencia técnica para el diseño, producción y dirección de la gala de los Premios Rikardo Arregi, promoviendo y garantizando la igualdad de mujeres y hombres.

2. Características del trabajo

El acto tendrá lugar en el auditorio de Bastero Kulturgunea, a finales de noviembre, y está prevista la asistencia de autoridades y representantes culturales, ciudadanía y medios de comunicación, con un aforo aproximado de 130 personas.

En los premios hay dos secciones, la de Periodismo y la de Comunicación, y además de estos dos premios, si el Jurado lo considera oportuno, también puede entregarse el Hito de Honor. La entrega de los tres premios tendrá una duración mínima de 50 minutos y máxima de 60 minutos , e incluirá música, danza u otras actividades artísticas. Asimismo, ETB grabará y/o emitirá en directo.

La empresa se encargará de las siguientes tareas:

- Diseño del acto de entrega de premios.
- Proponer y contactar con la persona que hará las labores de presentación y con las que llevarán a cabo las actuaciones.
- Diseño y adecuación del escenario.
- Elaboración del guión y la escaleta.
- Producción de los 3 audiovisuales que se proyectarán en el evento. Dos de ellos utilizarán imágenes de los finalistas de Periodismo y Comunicación y tendrán una duración máxima de 2 minutos cada uno. El tercer audiovisual versará sobre el Hito de Honor, si lo hubiera, y tendría una duración máxima de 3 minutos. Para la producción de este último será necesario grabar al menos 2

ESKUa03ee914-3ba8-496b-9ed2-c3fe20ba2222

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

- Ekitaldian erabiliko diren irudi dinamikoak diseinatzea eta ekoiztea.
- Ekitaldiaren zuzendaritza eta ekoizpena: teknikoekin, artistekin eta aurkezlearekin harremanak, entseguak, errejidore lanak, ETBrekin koordinatzea…

Lan horiek denak Udaleko Euskara Zerbitzuaren zuzendaritzapean egingo dira, eta horretarako, aldiro, Euskara Zerbitzuarekin batzartu beharko du enpresak.

Eszenografiarako erabiltzen diren materialak nahiz ekitaldia zuzenduko duen aurkezlea eta parte hartuko duten artistei dagozkien gastuak Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuak hartuko ditu bere gain, xede horretarako aurreikusitako 6.500 euroko aurreikuspenaren (BEZ barne) barruan.

3.- Esleipendunaren lan-esperientzia.

Enpresa esleipendunak gutxienez esperientzia izan beharko du azken hiru urteetan kontratazio honen xedearen antzeko ezaugarriak dituzten bi ekitaldi antolatzen.

Enpresak lan hau gauzatzeko izendatzen duen langile arduradunak, gutxienez, antzeko 3 ekitalditan horrelako ardura lana egin behar izan du azken 3 urtetan.

4.- Esleipendunaren betebeharrak

Hizkuntzari dagokionez:

- Lan guztiak euskaraz egingo dira, beraz, enpresak izendatzen dituen arduradun eta gidoilariak, gaitasuna izango dute beren lana euskaraz egiteko, C1 mailaren pareko gaitasuna, hain zuzen ere.
- Enpresak aurkezten dituen idatzizko agiriak euskarazkoak izango dira

Emakume eta gizonen berdintasunari dagokienez:

- Kontratu prestazioaren erabiltzaileen edo

- Diseño y producción de imágenes dinámicas a utilizar en el evento.
- Dirección y producción del evento: relaciones con personal técnico, artistas y presentadoras/es, ensayos, trabajos de regidor, coordinación con ETB...

Todos estos trabajos se realizarán bajo la dirección del Servicio de Euskera del Ayuntamiento, para lo cual la empresa deberá reunirse periódicamente con dicho Servicio.

Tanto los gastos de los materiales utilizados para la escenografía como los la persona que presentará el evento y los correspondientes a los artistas participantes serán asumidos por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Andoain, dentro de la previsión de 6.500 euros (IVA incluido) prevista para este fin.

3. Experiencia de la persona adjudicataria

La empresa adjudicataria deberá contar, como mínimo, con experiencia en la organización de dos eventos con características similares al objeto de esta contratación en los últimos tres años.

La persona designada por la empresa como responsable para la realización de este trabajo, ha tenido que realizar trabajos de responsable en, al menos, tres eventos similares en los últimos 3 años.

4.- Obligaciones de la persona adjudicataria

Respecto a la lengua:

- Dado que todos los trabajos se realizarán íntegramente en euskera, las personas designadas por la empresa como responsable del servicio y guionista deberán acreditar la capacidad necesaria para desarrollar su labor en dicha lengua, con un nivel equivalente a C1- La documentación escrita presentada por la empresa será en euskera.

Respecto a la igualdad entre mujeres y hombres:

- Se desagregarán por sexo los datos de las

ESKUa03ee914-3ba8-496b-9ed2-c3fe20ba2222

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

onuradunen datuak sexuaren arabera bereiztuko ditu.
- Kontratua gauzatzean, hizkera eta irudi ez-sexistak erabili beharko dira, inklusiboak eta genero-rol tradizionalak hausten dituztenak.
- Emakume eta gizonen parte hartze orekatua bultzatuko da ekitaldian.
- Espazioaren erabilera orekatua bermatuko da emakume eta gizonentzat.

personas usuarias o beneficiarias de la prestación contractual.
- En la ejecución del contrato deberá utilizarse un lenguaje e imágenes no sexistas, inclusivas y que rompan con los roles tradicionales de género.
- Se promoverá una participación equilibrada de mujeres y hombres en el evento.
- Se garantizará un uso equilibrado del espacio para mujeres y hombres.

Ingurumen irizpideei dagokienez, eszenografiarako erabiltzen diren materialak jasangarriak beharko dute izan, ahal den guztietan.

Respecto a los criterios ambientales, los materiales utilizados para la escenografía deberán ser sostenibles, siempre que sea posible.

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Teknikoen agiri hau **Euskara Saileko Zinegotzi Ahaldunak** onartu duela, Alkatetzak eskuordeturik, **2025/09/30eko** 2478/2025 Ebazpen bidez.

Diligencia: Que la extiendo yo, el Secretario de la Corporación, para hacer constar que el presente Pliego de Condiciones Técnicas ha sido aprobado mediante Resolución nº 2478/2023 de fecha **30/09/2025**. de **la Condejala Delegada del Servicio de Euskera**, por delegación de Alcaldía.

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

EKS | CSV: ESKUa03ee914-3ba8-496b-9ed2-c3fe20ba2222
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910